

idazkaritza-kontuhartzaitza

2026/06/17EAN EGINDAKO Ezohiko
Osoko bilkura.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO
DE LA CORPORACIÓN. Día 17/06/2026.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Edorta Barandiaran García
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Alaitz Orueta Arrese
Xabier Uriarte Iñurrategi
Puri Regidor Varela
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain

Eskoriatzan, 2026/06/17, arratsaldeko 18:00, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ezohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri .

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 17/06/2026, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Irati Iglesias y Maite Uribe .

idazkaritza-kontuhartzailetza

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

2026ko maiatzaren 28an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

2026ko ekainaren 10era arte Alkatetzak hartutako erabakien berri eman da.

3.- GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU HARTZEKO ZERBITZUA ORAINGO HONETAN ARETXABALETAKO UDALAREKIN BATERA LANKIDETZAN KONTRATATZEKO HITZARMENA FORMALIZATZEA.

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak proposatzen du lankidetza hitzarmena sinatzea Aretxabaletako Udalarekin GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZUA oraingo honetan elkarrekin kontratatzeko.

Sektore publikoko kontratazioari buruzko Estatuko araudiak onartzen du baterako kontratazioko hitzarmenak formalizatzea sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza horizontaleko sistema gisa, eta, horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei –2017ko SPKL– buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 31. artikuluan ezartzen du sektore publikoko erakundeek, nolanahi ere, erabaki ahal izango dutela kontratazio espezifikoak batera egitea.

Hitzarmenaren xedea udal-eskumenen barruan sartzen da, bereziki, honetan: "*e) Gizarte-premiako egoeren ebaluazioa eta informazioa eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta ematea*", Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.e) artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan jasoa.

Hitzarmen hori sinatzea interes orokorreko zat jotzen da, kudeaketa-baliabideak aurrezte eta eskaria gehitzea baitakar, eta horrek kontratuarekiko interesa hobetu dezake, lehia areagotuz eta eskaintza hobeak lortuz.

Batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Erabaki honekin batera, ERANSKIN gisa, doan lankidetza-hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Erabakia Aretxabaletako Udalari jakinaraztea, hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA.- Alkate-Udalburuari ahalmena ematea lankidetza-hitzarmena sinatzeko.

ERANSKINA

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.13) artikulua arabera, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalek eskumena dute gizarte-zerbitzuak antolatzeke, planifikatzeko eta kudeatzeko.

BIGARRENA: 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bestalde, 25.2.e) artikuluan udalen eskumen bezala jasotzen du honako hau:

“Gizarte-beharrizaneko egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta”

HIRUGARRENA: 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak 3. artikuluan printzipio orokorrak jasotzen ditu eta horien artean 3.1.k) artikuluan Administrazio publikoen arteko lankidetzak, elkarlana eta koordinazioa ageri da.

LAUGARRENA: Aipatu berri den Legearen 143. artikulua administrazio publikoen arteko lankidetzak arautzen du eta hitzez hitz hauxe dio:

“143. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetzak.

1. Administrazioak interes orokorraren zerbitzurako lankidetzan arituko dira eta, borondatez, beren eskumenak printzipio horretarako modurik onenean baliatzea erabaki ahalko dute.
2. Lankidetzak-harremanak formalizatzeko, alderdiek onarpen espresua eman beharko dute lankidetzak-organoen akordioetan edo hitzarmenetan.”

BOSGARRENA: Kontratazio arloan, bestalde, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuarenak 31. Artikuluan, lankidetzak publiko desberdinen sistemak arautzen ditu eta sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu daitezkeela esan eta gero, lankidetzak mota artean honako hau aipatzen du 31.1.b) artikuluan.

“Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzak horizontaleko sistemen bitartez, aurrez egin behar diren itunak eginez, 6. Artikulua 1. Apartatua ezarritako baldintzekin eta mugekin”

SEIGARRENA: Ondoren, 31.2 artikulua honako aukera hau jasotzen du:

Aurreko apartatua xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek nolanahi ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute”.

ZAZPIGARRENA: Eskoriatzako Udalak gaur egun indarrean duen “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuaren kontratua irailaren bukaeran amaitzen da. Aretxabaletako Udalaren kontratua berriz, datorren urtearen hasieran.

ZORTZIGARRENA: Hori horrela izanik, udal biek “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzua lizitazio batean ateratzeko interesa agertu dute udal bietan zerbitzua ematen duten

idazkaritza-kontuhartzailetza

langileak berberak direlako eta baita erabiltzaileak, adingabeak batez ere, bi herrietan mugitzen direlako. Horrela, zerbitzua era egokiagoan eta eraginkorragoan emango dela uste da eta, aldi berean, 40/2015 Legearen 3. artikuluko printzipio orokorrak beteko direla, batez ere honako hauek:

3.1.h) Finkatutako helburuak efikaziaz betetzea.

3.1.j) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Hori guztiori aintzakitatzat hartuz, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek honako lankidetzarako hitzarmena izenpetzen dute honako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA: HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen artean “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuaren lizitaziorako eta kudeaketarako oinarriak finkatzea.

BIGARRENA: ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honen sinadura goian adierazitako araudian oinarritzeaz gain, batez ere lehen aipatutako 9/2017 Legearen 31.2 artikuluan eta 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan oinarritzen da. Izan ere, 47. artikulua hitzarmen motak jasotzerakoan 47.2.a) artikuluan Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak jasotzen ditu.

HIRUGARRENA: UDAL BAKOITZAK HARTZEN DITUEN KONPROMISO EKONOMIKOAK

3.1. Aurrekontua, guztira: zerbitzuaren aurrekontu bateratua, luzapenak barne, 1.161.791,44 eurokoa da (BEZa barne).

Kopuru zehatzak honela finkatu dira:

- Aretxabaletako Udala: 711.763,02 € (hileko kostua 19.771,19 €) (BEZa barne).
- Eskoriatzako Udala: 450.028,42 € (Hileko kostua 11.539,19€) (BEZa barne).

3.2. Finantzaketa: Udal bakoitzak bere udalerriari dagokion zerbitzuaren zati proportzionala finantzatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

3.3. Fakturazioa: enpresa esleipendunak faktura bereiziak igorriko dizkio udal bakoitzari, hurrengo klausulan adierazten den moduan.

3.4.- Udal biek beren aurrekontuetan diru nahikoa duen partida izateko konpromisoa hartzen dute “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuaren gastuei aurre egin ahal izateko.

LAUGARRENA: UDAL BAKOITZAK HARTZEN DITUEN BESTELAKO KONPROMISOAK

- Aretxabaletako Udala arduratuko da “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuaren lizitazioaz, eta horretarako Eskoriatzako Udalak beharrezkoa den laguntza emango dio.

idazkaritza-kontuhartzailetza

- *Lizitaziora aurkezten dien eskaintzak aztertu eta gero, kontratazio mahaiak egiten duen proposamena aintzakotzat hartuz udal bakoitzak esleituko du bere herrian eskainiko den “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzua.*
- *“Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzua esleitu ondoren, enpresa esleipendunak hileroko hileroko udal bakoitzari fakturatuko dio aurreko hilean udal bakoitzeko herritarrei emandako zerbitzuengatik, eta udal bakoitza arduratuko da jasotako faktura ordaintzeaz zerbitzua era egokian burutu dela egiaztatuz eta faktura onartu ondoren.*

BOSGARRENA: HITZARMENAREN INDARRALDIA

Lankidetzaren hitzarmenaren indarraldia hertsiki lotuta egongo da “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuko kontratuen iraupenarekin. Behin kontratuak amaituta, hitzarmena indarririk gabe geratuko da.

SEIGARRENA: JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko, jarraipen batzordea eratuko da. Batzorde hau herri bietako gizarte ongizateko zinegotziekin eta gizarte langile banarekin osatuko da. Aretxabaletako gizarte langilea batzordeko idazkaria izango da.

Batzorde horren zereginak izango dira hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea eta hitzarmena hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea zinegotzietako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

HAZPIGARRENA: HITZARMENAREN ALDAKETAK

Hitzarmenaren hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa erantsiko zaizkio hitzarmen honi.

ZORTZIGARRENA: HITZARMENA AZKENTZEA

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.*
- b) Alde biek aho bateko akordioa.*
- c) Alde bietako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.*

Kasu horretan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoiak gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

idazkaritza-kontuhartzailetza

d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaritzen duen erabaki judiziala.

BEDERATZIGARRENA: JURISDIKZIOA.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMARGARRENA: GARDENTASUN ATARIA.

Hitzarmena Udal bakoitzaren gardentasun atarian argitaratuko da.

4.- GALDE-ESKEAK.

Josu Ezkurdiak galdetu du nola dagoen José Arana Patronatuaren estatutuak aldatzeari buruzko gaia.

Alkateak jakinarazi dio, jasotako azken informazioaren arabera, zirriborro bat idatzi dela eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu dela, bertako teknikariek horri buruzko iritzia eman dezaten. Gaineratu du kudeaketa horiek egiteko ZENBAKlren laguntza dutela, eta berriro galdetuko duela zerbait aurreratu den jakiteko.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:05ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 28 de mayo de 2026.

2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da traslado de las resoluciones dictadas hasta el día 10-06-2026.

3.- FORMALIZACIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA PARA LA CONTRATACIÓN CONJUNTA ESPORÁDICA DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIO-EDUCATIVA Y PSICO-SOCIAL.

Resultando que desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes se propone la formalización de un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Aretxabaleta para la contratación conjunta esporádica de la prestación del SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIO-EDUCATIVA Y PSICO-SOCIAL.

Considerando que la normativa estatal sobre contratación del sector público admite la formalización de convenios de contratación conjunta como un sistema de cooperación horizontal entre entidades pertenecientes al sector público, disponiendo a estos efectos el art. 31 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público -LCSP 2017-, que las entidades pertenecientes al sector público podrán en todo caso, acordar la realización conjunta de contrataciones específicas.

Considerando que el objeto del convenio se encuadra dentro de las competencias municipales, especialmente en la competencia “e) *Evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social* “ , prevista en el artículo 25.2.e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL- y art. 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

Resultando que se considera de interés general la suscripción del citado convenio, por cuanto que supone un ahorro en los recursos de gestión y una agregación de la demanda que podría mejorar el interés del contrato con el consiguiente aumento de la concurrencia y la obtención de mejores ofertas.

De conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa, y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar el convenio de colaboración que se adjunta a la presente acuerdo como ANEXO.

SEGUNDO.- Notificar el acuerdo al Ayuntamiento de Aretxabaleta , al objeto de que proceda a su firma.

TERCERO.- Facultar a la alcaldía-presidencia para la suscripción del convenio de colaboración .

ANEXO

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.13) artikulua araber, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalek eskumena dute gizarte-zerbitzuak antolatze, planifikatzeko eta kudeatzeko.

BIGARRENA: 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bestalde, 25.2.e) artikuluan udalen eskumen bezala jasotzen du honako hau:

“Gizarte-beharrizaneko egoeren ebaluazioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako berehalako arreta”

HIRUGARRENA: 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak 3. artikuluan printzipio orokorrak jasotzen ditu eta horien artean 3.1.k) artikuluan Administrazio publikoen arteko lankidetz, elkarlana eta koordinazioa ageri da.

LAUGARRENA: Aipatu berri den Legearen 143. artikulua administrazio publikoen arteko lankidetz arautzen du eta hitzez hitz hauxe dio:

“143. artikulua. Administrazio publikoen arteko lankidetz.

3. Administrazioak interes orokorraren zerbitzurako lankidetzan arituko dira eta, borondatez, beren eskumenak printzipio horretarako modurik onenean baliatzea erabaki ahalko dute.

4. Lankidetz-harremanak formalizatzeko, alderdiek onarpen espresua eman beharko dute lankidetz-organoen akordioetan edo hitzarmenetan.”

BOSGARRENA: Kontratazio arloan, bestalde, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuarenak 31. artikuluan, lankidetz publiko desberdinen sistemak arautzen ditu eta sektore publikoko erakundeak elkarrekin lankidetzan aritu daitezkeela esan eta gero, lankidetz mota artean honako hau aipatzen du 31.1.b) artikuluan.

“Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetz horizontaleko sistemen bitartez, aurrez egin behar diren itunak eginez, 6. Artikulua 1. Apartatuan ezarritako baldintzekin eta mugekin”

SEIGARRENA: Ondoren, 31.2 artikulua honako aukera hau jasotzen du:

Aurreko apartatuan xedatutakoaren eraginetarako, sektore publikoko erakundeek nolanahi ere, berariazko kontratazioak elkarrekin egitea erabaki ahalko dute”.

ZAZPIGARRENA: Eskoriatzako Udalak gaur egun indarrean duen “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuaren kontratua irailaren bukaeran amaitzen da. Aretxabaletako Udalaren kontratua berriz, datorren urtearen hasieran.

ZORTZIGARRENA: Hori horrela izanik, udal biek “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzua lizitazio batean ateratzeko interesa agertu dute udal bietan zerbitzua ematen

idazkaritza-kontuhartzailetza

дутен langileak berberak direlako eta baita erabiltzaileak, adingabeak batez ere, bi herrietan mugitzen direlako. Horrela, zerbitzua era egokiagoan eta eraginkorragoan emango dela uste da eta, aldi berean, 40/2015 Legearen 3. artikuluko printzipio orokorrak beteko direla, batez ere honako hauek:

3.1.h) Finkatutako helburuak efikaziaz betetzea.

3.1.j) Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Hori guztiori aintzakotzat hartuz, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalek honako lankidetzarako hitzarmena izenpetzen dute honako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA: HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da Aretxabaletako eta Eskoriatzako udalen artean "Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko" zerbitzuaren lizitazioarako eta kudeaketarako oinarriak finkatzea.

BIGARRENA: ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honen sinadura goian adierazitako araudian oinarritzeaz gain, batez ere lehen aipatutako 9/2017 Legearen 31.2 artikuluan eta 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan oinarritzen da. Izan ere, 47. artikulua hitzarmen motak jasotzerakoan 47.2.a) artikuluan Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak jasotzen ditu.

HIRUGARRENA: UDAL BAKOITZAK HARTZEN DITUEN KONPROMISO EKONOMIKOAK

3.1. Aurrekontua, guztira: zerbitzuaren aurrekontu bateratua, luzapenak barne, 1.161.791,44 eurokoa da (BEZa barne).

Kopuru zehatzak honela finkatu dira:

- Aretxabaletako Udala: 711.763,02 € (hileko kostua 19.771,19 €) (BEZa barne).*
- Eskoriatzako Udala: 450.028,42 € (Hileko kostua 11.539,19€) (BEZa barne).*

3.2. Finantzaketa: Udal bakoitzak bere udalerrinari dagokion zerbitzuaren zati proportzionala finantzatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

3.3. Fakturazioa: enpresa esleipendunak faktura bereziak igorriko dizkio udal bakoitzari, hurrengo klausulan adierazten den moduan.

3.4.- Udal biek beren aurrekontuetan diru nahikoa duen partida izateko konpromisoa hartzen dute "Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko" zerbitzuaren gastuei aurre egin ahal izateko.

LAUGARRENA: UDAL BAKOITZAK HARTZEN DITUEN BESTELAKO KONPROMISOAK

idazkaritza-kontuhartzailetza

- Aretxabaletako Udala arduratuko da “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuaren lizitazioaz, eta horretarako Eskoriatzako Udalak beharrezkoa den laguntza emango dio.
- Lizitaziora aurkezten dien eskaintzak aztertu eta gero, kontratazio mahaiak egiten duen proposamena aintzakotzat hartuz udal bakoitzak esleituko du bere herrian eskainiko den “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzua.
- “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzua esleitu ondoren, enpresa esleipendunak hileroko hileroko udal bakoitzari fakturatuko dio aurreko hilean udal bakoitzeko herritarrei emandako zerbitzuengatik, eta udal bakoitza arduratuko da jasotako faktura ordaintzeaz zerbitzua era egokian burutu dela egiaztatu eta faktura onartu ondoren.

BOSGARRENA: HITZARMENAREN INDARRALDIA

Lankidetzaren hitzarmenaren indarraldia hertsiki lotuta egongo da “Gizarte eta Hezkuntza arloan, eta arlo Psikosozialean Esku Hartzeko” zerbitzuko kontratuen iraupenarekin. Behin kontratuak amaituta, hitzarmena indarririk gabe geratuko da.

SEIGARRENA: JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmena behar bezala betetzen dela zaintzeko, jarraipen batzordea eratuko da. Batzorde hau herri bietako gizarte ongizateko zinegotziekin eta gizarte langile banarekin osatuko da. Aretxabaletako gizarte langilearen batzordeko idazkaria izango da.

Batzorde horren zereginak izango dira hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea eta hitzarmena hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea zinegotzietako batek eskatzen duen bakoitzean bilduko da, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

ZAZPIGARRENA: HITZARMENAREN ALDAKETAK

Hitzarmenaren hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa erantsiko zaizkio hitzarmen honi.

ZORTZIGARRENA: HITZARMENAREN AZKENTZEA

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoren bat dagoenean.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren epea igaro izana.
- b) Alde biek aho bateko akordioa.
- c) Alde biek batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Kasu horretan, bi aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, ahalik eta lasterren bete ditzen urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

idazkaritza-kontuhartzailletza

Errekerimendua egin eta gero ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua egin duenak beste aldeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoia gertatu dela, eta hitzarmena suntsitutzat joko da. Kasu horretan, hitzarmena suntsiarazteak eragindako kalteak ordaindu behar izatea ekar dezake.

d) Hitzarmenaren baliogabetzea deklaritzen duen erabaki judiziala.

BEDERATZIGARRENA: JURISDIKZIOA.

Hitzarmenaren aplikazioari, interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alde bien artean erabakiko dira, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarri aurretik, judizioz kanpoko akordio batera iristeko bide guztiak agortuko dira.

Bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek izango dute auzigaiak ezagutzeko eskumena, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

HAMARGARRENA: GARDENTASUN ATARIA.

Hitzarmena Udal bakoitzaren gardentasun atarian argitaratuko da.

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Josu Ezkurdia pregunta cómo está el asunto relativo a la modificación de Estatutos del Patronato José Arana.

El Alcalde le hace saber que, según la última información recibida, se ha redactado un borrador y se ha presentado en el Gobierno Vasco para que sus técnicos informen sobre el mismo. Añade que para llevar a cabo esas gestiones se está disponiendo de la colaboración de ZENBAKI; así como que volverá a preguntar para saber si se ha avanzado algo.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:05 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.

2026/06/17
Ez ohiko Osoko bilkura
Sesión Extraordinaria del Pleno

11



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026IAKU0006-Osoko bilkurako akta ELE2/Acta del Pleno ELE2 ()